

Joseba Sarrionandia - Ruper Ordorika

Mintzaldi-kantaldia

Terexak erran bezala, Euskal Ethnopolok antolatzen dituen usaiako mintzaldien zikloan, gaurkoak badu toki berezi bat, baita ere formato berezi bat. Duela urtea, Joseba Sarrionandiaren obraren inguruan eta haren itzultzea ospatu beharrez, gaur gure artean dagoen Mari-Jo Olaziregi EHUKo irakasleak kolokio handi bat antolatu zuen Bilbon, bere iker taldeko kideekin batera. Karia hortara, gaur emanen den kantaldi-mintzaturia eman zuten lehen aldikotz Joseba Sarrionaindiak eta Ruper Ordorikak. Geroztik laupabost aldiz emana dute, Bilbon batez ere. Beraz, gaur Baionan eskaintzen diguten emanaldia guziz eskertzekoa da. Ethnopoloren gaualdietara heldu diren mintzalari guzien gisan, lagunduko gaituzte gaurko euskal kultura ezagutzen eta ulertzen. Bi bozetan, kontakantatuko digute azken berrogoi urteetako euskal literaturaren historia parte bat, poesiarena eta kantagintzarena, hain zuzen. Badu berrogoi urte pasa elkar ezagutzen dutela eta kasik beste hainbeste elkarrekin lanean ari direla. 70eko hamarkadaren ondarra eta 80-eko hamarkadaren hastepenean zen giro berezian elgarretaratu ziren.

1. Zer zuen berezirik orduko giroak ?

Egoera gogorra zen, dakizuen bezala. Bainan, denbora berean, guziz erakargarria zen, sorkuntzarko oso egokia. Orduan iduri zuen dena posible zela, kultura eta literatura mailan. Edo hala emaiten zuen segurik. Gaztaroaren lilura... menturaz.

Garai hartan, Euskal literatura erabat aldatu zen. Gabriel Aresti zendu berria zen eta haren inguruan belaunaldi berri bat agertu zen. Ramon Saizarbitoria, Koldo Izagirre eta Bernardo Atxaga idazle gazteak sortzaile paregabeak izateaz gain, denbora berean, eragile eta akuilatzaile sutsu bezain trebeak izan ziren. Andu Lertxundi, Joan-Mari Irigoien, Arantxa Urretabizkaia eta beste asko ere hor ziren lanean ari. Eta gainera, ondoko belaunaldia berehala lilitu zen : Laura Mintegi, Itxaro Borda, Aingeru Epalza eta ainitz holako. Horien artean, Joseba Sarrionandia.

Literatura mailan, udaberri kultural horren ezaugarri nabariena izan zen aldizkari literarioen loraldia. Gehienak, kontrakultura moduan sortu ziren. Eskualde bakotxean, bat bederen agertu zen, *Maiatz* iparraldean Luzien Etxezaharretak bultzaturik, *Idatz&Mintz* Bizkaian, *Mazantini* Nafarroan, *Susa* Gipuzkoan. Beste izen batzu eman daitezke nahas-mahas : *Korrok*, *Kandela*, *Literatur gazeta*, geroxago *Garziarena*, eta, dudarik gabe, beste zenbait ahanzten ditut.

Kontrakultura giro horren bultzatzeko bi talde oso emankorrak izan ziren eta haiek zituzten bide transgresiboenak erabili, euskal literatura berri nahian. Alde batetik, *Ustela* taldea Donostian, bestaldetik *Pott banda* Bilbon eta Bernardo Atxaga, bien arteko lokarri bezala. Donostian, *Ustela* taldeak *Oh! Euzkadi* aldizkari berri baten aleak argitaratu zituen : *Pampiña ustela*, *Zorion ustela*, *Mermelada ustela*, besteak beste. Ramon Saizarbitoria eta Koldo Izagirrearen inguruan, gazte frango bildu ziren. Juanba Berasategi eta Antton Olarriagaren estetika lagun, orduko euskal kultura, menturaz prestuegia, uzkurregia zena kilikatu eta kitzikatu zuten, batean fereka, bestean aztapar.

Bilbon, garai berean, *Pott banda* osatu zen. Orduko poxi bat ezagutuzten hasia zen Bernardo Atxagaren inguruan, Joseba Sarrionandia, Jose-Mari Iturralde, Manu Ertzila eta beste batzuk bildu ziren eta haien artean kantari gazte bat, Ruper Ordorika. Aldizkari literario bat sortu zuten : ***Pott banda***, ***Pott bandaren braga*** edo ***Pott Tropikala*** bezalako tituluak publikatu zituzten. Izenburuetarik ageri da ironia, kritika eta probokazioa zirela baliabide literario erabilienak. Helburu kritikoaz gain, beste ardatz bat guziz sendoa bazuten *Pott banda*-n : literaturaren zaletasun asegabea, ase ezina ! Bernardo Atxagak zion bezala, idazten hasi baino lehen, ordu arteko euskal idazle guziak leituak zituzten. Denbora berean kanpokoak ere lantzen zituzten, autore nagusiak Fernando Pessoa edo Italo Svevo bezalakoak bainan minoreak eta marginalak ere bai, adibidez Marcel Schwob eta Raymond Quenau. *Pott bandan*, Literaturaren pasioaz bizi ziren, maitele gazteak ur freskoa eta amodioarekin egiten duten ber. Joseba Sarrionandia eta Ruper Ordorika, beste partaideekin batera, *Pott* aldizkari literarioan inplikatu ziren azkarki, ordu anitz eman ez eta, askotan, moltsa urratuz aldizkaria biziarazteko eta imprimategian utzi zorrak tapatu beharrez.

Holako giroan agertu dira gaur entzunen ditugun bi artistak eta behar bada, hastapeneko egoera hortaz zerbait erranen digute. Geroztik egin dute bide frango. Berrogoi urtez arizan dira lanean, bakotxak obra nasai bat emanik, norberak bere sailean. Sartze honen bukatzeko, bakotxari buruz, xehetasun beharrenak emanen ditut.

2. **Zer idazle bilakatu da Joseba Sarrionandia berrogoi urtez ?**

30 bat liburu pasa publikatu ditu. Helduentzat ari izana da baita ere haur eta gazteentzat. Eta genero gehienak erabili ditu, poesia, saioa, narratiba. Salbu antzerkia menturaz. Bainan, azken liburua, *Munduari bira eman zion ontzia* (2022), elkarrizketa moduan osatua da eta biziki bisuala da. Hura, errexki eman daiteke ikusgarri edo antzerki bezala, hain segur.

Obra xingola luze hortan, liburu nagusi batzu badira. Lehen liburua, 1981an, *Izuen gorde lekuetan barrena* poesia bilduma izan da eta, ikusiko duzuen bezala gaur emanen duten kantu baten bidez, *Pott bandaren* izpiritu literario aurrekaria eta idekia aurkitzen zen liburu hartan.

Narrazioak ipuin bilduma eta *Ni ez naiz hemengoa* saio bilduma izan ziren ondokoak. Bi liburu horiekin, euskal irakurle gozabail bat hunkitu zuen. Preso altxatua izan zelarik eta gero presondegitik airatu zelarik, poeta desterratuaren figura osatu zuen euskal irakurle gozabailentzat eta “mito literario” bat bilakatu zen, nahi gabetarik.

1992an, *Gartzelako poemak* liburuak lehen bihurtuak markatu zuen. Beste presokide asko bezala, barnean bizi izan zuen egoera latza kanpora hedatu zuen Ruper Ordorikari esker, *Galtzetan gordetzeko koblak* kantu famatuaren bidez. 2001an hasten da heldutasunaren garaia, *Lagun izoztua* eleberriarekin. Geroztik titulu berri asko izan da joan den urtekoa, *Munduari bira eman zion ontzia*, agertu arte.

Bere obra guziaz euskaraz egiten duen autore horrek harreman oso hestua badu euskal irakurlearekin eta kritikaren harrera ona ukan du, haste hastetik. 2000 urtean argitaratu zuen *Bost idazle* izeneko liburuan, Hasier Etxebarriak euskal autore garaikide nagusien artean finkatu zuen Sarrionandia, Atxaga, Izagirre, Lertxundi eta Sarzaibitoriarekin batera. Irakurle gozabailentzat eta kritikaz gain, egoera guziaz baikor horren erakusteko beste bi ezaugarri nagusi badira :

Alde batetik, berrargitalpenak kasik berehala abiatu ziren *Ni ez naiz hemengoa* liburuarekin. Zorte on hori ez zaio askori gertatzen euskal literaturan. Bestaldetik, ikerlariak 90eko hamarkadan berean hasi dira azterketak egiten haren obran, horien artean tesia doktoralak : Aitzpea Azkorbebeitia, Aiora Jaka eta Eider Rodriguez-en ikerlanak aipa daitezke, besteak beste.

Joseba Sarrionandiak, literaturazale guziaz bezala, liburuetan ikasia du mundua eta, ondorioz, mundua irakurtzen du liburu baten gisa, munduko autore guziaz lagun. Kultura eta idekidura handiko literatura egiten du eta dagoen heinetik gorago eraman nahi du bere irakurlea. Anitz iturriarekin konektatua da. Lehengo eta orain idazle askorekin dialogoan sartzen da bere liburuetan, denen plazer eta probetxurako. Bainan, denbora berean, doinu goxoa bezain apala erabiltzen du, lagunaren arteko arteko solasaldi batean bezala, hots, prentenziarik gabe.

Harek, literatura festa bat bezala bizitzen du : jakitateak, irakurketak, anekdotak, iritziak eta sendimenduak irakurlearekin partekatzen ditu, janari, edari eta goxoki hautak balire bezala. Bere ontasunen banatzeko molde sinplea du Joseba Sarrionandiak, mahai inguru batean adiskideen artean bazkari on bat konpartitzen den bezala. Eta adiskide horien artean, noski, Ruper Ordorika aurkituko dugu !

3. **Zein izan da Ruper Ordorika kantariaren orain arteko ibilaldia ?**

Ruper Ordorikak ere ez luke aurkeztearen beharrik ! Eta gaur hurbildu baldin bazirezte, gu bezala, haren musikazaleak zirezte. Hogoi bat disko pasa baditu eginek. 1980an, *Hautsi da*

amphora izan da lehena, Bernardo Atxagaren letrekin eta *Amour eta toujours*, 2021, orain arteko azkena, Kubako musikak alaiturik. Josebarekilako kolaborazioa bigarren diskotik hara hasten da, *Ni ez naiz Noruegako errege*, 1983-ko grabaketarekin hain zuzen. Eta disko anitzetan, elkarren arteko ekarpena aurkitzen da. Gailur gisa aipa daiteke 2006 bien artean osatu zuten *Memorioaren mapan*, hitzak Josebarenak eta doinuak Ruperenak.

Ruper Ordorikak musika mota anitz erabili ditu : Folk tradizionala *Hiru truku* taldearekin, folk modernoa, rock, jazz. Munduko beste kolore asko erakarri ditu euskal eremura, hemengo baita ere New-York-eko, Londres-eko eta Kubako musikari lagun batzuekin ariz.

Ruperrek egiten dituen kantuek asko hunkitzen gaituzte. Ez du parerik kopla batez giro goxo eta intimo baten sortzeko, *Nirekin geratu* kantuan bezala :

Tori errezil sagar bat

Eman zure paltoa

Geratu zaitez nirekin,

Ogi egin berria,

Intxaurrak eta gaztaia

Ipuinetan bezala.

Azaltzen dituen sendimenduak, bere baitan oso barna bilatzen ditu eta, zehazki formulatzen ditu. Hala nola *Nire bihotz ttikia* kantuan :

Ez zait atsegina nire bihotz ttikia

Hain da leiala

Hain da beldurtia

Gure baitako parte hauskorrenean, menturaz hoberenean, baikorrean hunkitzen gaitu. Gutarik oso hurbil geratzen da. Gutaz mintzo da. Eta poeta guzien gisa, guhaurek formulatzera lortzen ez duguna, harek ispilu batean erakusten digu.

Leialtasuna ere nabari da, argi handi baten gisan, Ruper Ordorikaren orain arteko ibilaldian. Guziz leiala izan zaio euskal kulturari eta euskarari, zailtasunak gorde gabe, diolarik :

Inork ez zidan esan

Euskaldun izaitea zein nekeza den

(...) Zaindu maite duzun hori.

Leialtasun ber bera aurkitzen da laguneri begira azken urteetako lanetan : joan den urtean, *Hautsi da amphora*, Bernardo Atxagaren letrekin egin zuen lehen diskoa, berritz eman du publikoan, bere betiko konplizearekin. Eta, gaur ikusten duzuen bezala, Joseba Sarrionandia bere aspaldiko adiskidearekin ere, berresten du lehengo lotura. Nolaz ez gintazke fida holako atxikimendu frogak emaiten dituzten jendeen baitan ? Nahigabe frango bizi izan ditu Joseba

Sarrionandiak, bainan, denboraren buruan, Ulysesen gisa, euskal mariñela bere portura itzuli da. Eta berriz elkartu dira aspaldiko lagun minak. Anartean euskal kulturaren zutabe eta mito bilakatu dira. Mitoak ez dira zahartzen, edo gure gisako jende arruntak baino aise arraposkiago. Gaur hemen ditugu, lehen bezain bipil !

Atsegin handiz ikusten zaituztegu, lehengo denboretan bezala elkarturik. Milesker Ethnopolari gaurko emanaldiarentzat eta milesker zueri Baionara etorririk.